

Ermuko Udal Liburutegia Biblioteca Municipal de Ermua

ZERUA MARGOTU DUZU
LO NENGOEN BITARTEAN

NEW YORKEN IDATZIAK

EZIZENA: OLIBER

Hegazkinera igotzen naizen bakoitzean
bizitza bera asmakizun bat iruditzen zait

Ikusten ditut

hiriak eta mendiak maketatzen

algodoi zuriz estali arte

gogora dezagun hauskortasuna

eta urdinari begira

pentsatzen dut

egunen batean kontatu nahi dizudala

gaur idatzi dudan guztia

Denborari lapurtutako hegaldian

alboan zaitudala

Ermuko Udal Liburutegia/Biblioteca Municipal de Ermua

Hemen etxeek

larrialdi-eskailerak dituzte

kalerantz begira

halabeharrez ebakutzeko

barrutik kanpora

Nik pentsatzen dut

gureak ere behar dituela halakoak

ebakutzeko

kanpotik barrura

behar zaitudanetan

Ermuko Udal Liburutegia/Biblioteca Municipal de Ermua

Metroak espazioa eta denbora
lapurtzen dizkio lurpeari
trukean emateko
abiada, dardara eta zarata

Adi egonez gero
ordea
usaintzen dira koloreak eta
entzuten dira begiradak

eta horregatik noa adi
agian
adibidez zu ere
adi zoazelako

Ermuko Udal Liburutegia/Biblioteca Municipal de Ermua

Nahiago ditut goizak
arratsaldeak baino
esnatzean ez dudalako
existentziaren kontzientzia
garatzeko denborarik izaten

Nahiago ditut gauak
arratsaldeak baino
oheratzean ez dudalako
existentziaren kontzientzia
garatzeko indarririk izaten

Halaber
goizaren eta gauaren artean
egunero daude
arratsaldeak

Batera gaudenetan

ez al da aski

bihotz bat

biontzat?

Zurea bada

bai

Ermuko Udal Liburutegia/Biblioteca Municipal de Ermua

Letra txukunez idatzi nizun
landu nuen marra bakoitza
hurbildu nintzen
esan nahi nizunera

Baina irakurtzen dudan aldiro
beti falta zaio hitz bat
eta hitz hori da
esan nahi nizuna
biharko gordetzera
kondenatzen nauena

Ermuko Udal Liburutegia/Biblioteca Municipal de Ermua

Burdinazko zainak

dituen hiri batean

odola azalak garraiatzen du

Horregatik dabilta

zauriak oinez

Ermuko Udal Liburutegia/Biblioteca Municipal de Ermua

Nola izan lurterra

eraikin altuko

hiri batean?

Eskailerak

jaitsigarriak izanagatik

igotzeko asmatu zituzten

Ermuko Udal Liburutegia/Biblioteca Municipal de Ermua

Milioika pertsonako

hiri honetan

begirada guztiei

zure begiak

falta zaizkie

Ermuko Udal Liburutegia/Biblioteca Municipal de Ermua

Abenduko ametsak

apirilean loratzen dira

galtza motzekin

egunak luzeagoak direlako

Ermuko Udal Liburutegia/Biblioteca Municipal de Ermua

Zer ote du eguzkiak

sugandila harrien artetik ateratzeko?

Zer ote du ilargiak

otsoak erantzun diezaion?

Zer ote du baserriak

enarak kabia egin dezan?

Zer ote duzu zuk

pentsa zaitzadan?

Ermuko Udal Liburutegia/Biblioteca Municipal de Ermua

Tronpatu hitza erabiltzen zenuen

eta nik elefantea irudikatzen

Aditzen nuen hitza

ezin ukitu ordea

Gaur ez zaitut aitona

baina ez nintzen tronpatu

Zure oroitzapena elefantea delako

eta ni gainean naramazun umea

Segi oinez

hemendik mundua ederragoa baita

Ermuko Udal Liburutegia Biblioteca Municipal de Ermua

Euriak negarra disimulatzen du

Horregatik uste duzu

tristea zaidala negua

Niri ordea

gustatzen zait negua

negar egin ezinagatik

eskubidea ematen didalako

Ermuko Udal Liburutegia/Biblioteca Municipal de Ermua

Zeruratu naizen honetan
hutsuneak baino
une hutsak sentitzen ditut

Zerk bete dezake zerua

ez bada

zure urdinak?

Zuri begira nago

Ermuko Udal Liburutegia/Biblioteca Municipal de Ermua